Sin./Fdo.: IÑAKI GABIREL ARTEAGA ARTABE 2024-10-18
KATASTRO ETA BALORAZIO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE CATASTRO Y VALORACIÓN

Sin./Fdo.: MAITE ASENSIO DE LA VILLA 2024-10-18
KATASTROAREN ETA ZERBITZUEN ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE CATASTRO Y SERVICIOS

Sin./Fdo.: ITXASO BERROJALBIZ ZABALA - 2024-10-18
OGASUN ETA FINANTZA SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2024-10-24
GZko 14.gaia onartuta - Aprobado, asunto 14) de OD



Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Basauriko Udalaren arteko katastroaren kudeaketarako lankidetza-hitzarmena sinatzea baimentzen duena

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foruko Higiezinen Katastroari buruzko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatuitakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen esklusiboa da Higiezinen Foru Katastroa eratzea eta mantentzea, bai eta katastroko informazioa zabaltzea ere. Eginkizunon artean daude, besteak beste, katastroko datuen kontserbazio, berritze eta berrikusketa, errolda prestatzea, datuen ikuskaritza eta katastro-kartografia prestatu eta kudeatzea. Eginkizunok, bada, Ogasun eta Finantza Sailak beteko ditu, zuzenean edo udalekin edo beste toki-erakunde batzuekin sinatutako lankidetza-hitzarmenen bidez, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, 2016an hitzarmen bat onartu zuen Basauriko Udalarekin. Hitzarmen horren bidez, katastroa kudeatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen jakin batzuk

Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Basauri para la gestión catastral

De acuerdo con el artículo 4 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, es competencia exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia la formación y mantenimiento del Catastro Inmobiliario Foral así como la difusión de la información catastral. Estas funciones que comprenden, entre otras, la conservación, renovación y revisión de los datos catastrales, la elaboración del Padrón, la inspección y la elaboración y gestión de la cartografía catastral, se ejercerán por el Departamento de Hacienda y Finanzas, directamente o a través de los convenios de colaboración que se celebren con los Ayuntamientos u otras entidades locales, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

La Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobó en el año 2016 un convenio con el Ayuntamiento de Basauri en virtud del cual delegaba determinadas facultades de gestión catastral competencia de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eskuordetu zituen, Basauriko Udalak erabil zitzan, betiere Bizkaiko Foru Aldundiak finkatutako ereduari, balorazio-irizpideei, eguneratzeari eta aplikatzeko jarraibideei jarraituz. Ondorioz, Basauriko Udalak eskuordetza-araubidean bete izan ditu hitzarmen horretan aipatutako eginkizunak.

Diputación Foral de Bizkaia para que fueran ejercidas por el Ayuntamiento de Basauri, siguiendo siempre el modelo, criterios de valoración, actualización e instrucciones para su aplicación fijadas por la Diputación Foral de Bizkaia. Y en consecuencia el Ayuntamiento de Basauri ha venido ejerciciendo en régimen de delegación las funciones citadas en dicho convenio.

Ordezkaritza honek urte hauetan ongi funtzionatu duenez, indarrean dagoen araudi berria beteko duen hitzarmen eguneratu bat sinatzea proposatzen da.

Dado que esta delegación ha funcionado durante estos años de manera satisfactoria, se propone la suscripción de un nuevo convenio actualizado que cumpla con la nueva normativa vigente.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzen diputatuaren proposamenez, eta 2024ko XXXren XXXko bileran eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du:

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Hacienda y Finanzas y previa deliberación en su reunión de XX de XXXXXX de 2024, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente:

## ERABAKIA

**Lehenengoa.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Basauriko Udalaren artean katastroaren kudeaketa egiteko hitzarmena sinatzeko baimena ematea.

Hitzarmen horretan, zeinaren testua erantsi baita, jasota daude alderdiek euren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak, bigarren puntuan adierazitako diruzko ekarpena barne.

**Bigarrena.-** Hitzarmenaren indarraldia 4 urtekoa izango da, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Ondoz ondoko urtebeteko epeetan luzatu ahal izango da, gehienez ere 4 urtera arte. 50.000 euroko gehieneko finantza-

## ACUERDO

**Primero.-** Autorizar la celebración de un convenio entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Basauri para la gestión catastral.

En el citado convenio, cuyo texto se adjunta, se recogen las obligaciones y compromisos asumidos entre las partes, incluida la aportación financiera recogida en el punto segundo.

**Segundo.-** El plazo de vigencia del Convenio será de 4 años y producirá sus efectos a partir del 1 de enero de 2025, pudiendo prorrogarse por plazos sucesivos de 1 año hasta un máximo de 4 años. La aportación financiera por un importe máximo de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ekarpena honako aurrekontu-partida honen kargura egingo da:

Organikoa: 0501; Programa: 932124; Ekonomikoa: 43299; Proiektua: 2007/0196.

Izapidetze aurreratuko hitzarmena denez, 5/2013 Foru Dekretuaren 56. artikuluaren arabera, baldintza da Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa egotea.

**Hirugarrena**.- Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena sina dezan, bai eta hura garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko ere.

**Laugarrena**.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

Bilbon, ko azaroaren xn
Katastro eta Balorazio Zerbitzuko Burua

50.000 euros se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria:

Orgánico 0501 Programa 932124 Económico 43299 Proyecto 2007/0196

Tratándose de un convenio de tramitación anticipada, queda condicionado según el artículo 56 del DFN 5/2013, a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del THB.

**Tercero**.- Facultar a la diputada foral de Hacienda y Finanzas para la firma del referido convenio, así como para que dicte todas las disposiciones necesarias para su desarrollo.

**Cuarto**.-Dar traslado del presente Acuerdo a las partes interesadas.

En Bilbao , a x de noviembre de
El Jefe de Servicio de Catastro y Valoración

Iñaki Arteaga Artabe

Katastroko eta Zerbitzuetako zuzendari nagusia

La Directora General de Catastro y Servicios

Maite Asensio de la Villa

Ados egonik, igor bekio interesdunari

Conforme, elévese

OGASUN ETA FINANTZETAKO FORU DIPUTATUA

LA DIPUTADA FORAL DE HACIENDA Y FINANZAS

Itxaso Berrojalbiz Zabala

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BASAURI
Udala • Ayuntamiento

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BASAURIKO UDALAREN ARTEAN SINATU BEHARREKOA KATASTROA KUDEATZEKO HITZARMENA

BILDU DIRA:

Batetik, Itxaso Berrojalbiz Zabala andrea, Bizkaiko Ogasun eta Finantzetako foru-diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta ordezkaritzan, eta, bestetik, Asier Iragorri Basaguren jauna, Basauriko alkate-udalburua, Basauriko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

Alde biak, euren eskumenengatik eta elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmenak eta gaitasunak aitortuz,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I. Maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko higiezinen foru katastroari buruzkoak, 4. artikuluan xedatzen duenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen esklusiboa da Higiezinen Foru Katastroa egin eta mantentzeko eta katastroko informazioa zabaltzeko. Eginkizunon artean daude, besteak beste, katastroko datuen kontserbazio, berritze eta berrikusketa, errolda prestatzea, datuen ikuskaritza eta katastro-kartografia prestatu eta kudeatzea, eta Ogasun eta Finantza Sailak beteko ditu eginkizun horiek, zuzenean zein udalekin edo bestelako toki-erakundeekin sinatutako lankidetza-hitzarmenen bidez, erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

Aurreko puntuan xedatutakoa gorabehera, balio-txostenak prestatzeko eta onesteko goi-eginkizuna —

CONVENIO PARA LA GESTIÓN CATASTRAL A SUSCRIBIR ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE BASAURI

REUNIDOS:

De una parte, doña Itxaso Berrojalbiz Zabala, diputada foral de Hacienda y Finanzas de Bizkaia, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, y de otra parte don Asier Iragorri Basaguren, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Basauri, en nombre y representación del Ayuntamiento de Basauri.

Dichas partes, en razón de sus respectivas competencias y reconociéndose poderes y facultades para formalizar el presente convenio,

MANIFIESTAN:

I. Que el artículo 4 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia dispone que es competencia exclusiva de la Diputación Foral de Bizkaia la formación y mantenimiento del Catastro Inmobiliario Foral así como la difusión de la información catastral. Estas funciones que comprenden, entre otras, la conservación, renovación y revisión de los datos catastrales, la elaboración del Padrón, la inspección y la elaboración y gestión de la cartografía catastral, se ejercerán por el Departamento de Hacienda y Finanzas, directamente o a través de los convenios de colaboración que se celebren con los Ayuntamientos u otras entidades locales, en los términos que reglamentariamente se establezcan.

No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, la superior función de elaboración y aprobación de las

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lurzorua zedarriztatu aurretik egingo dena, beharrezkoa bada— eta katastro-balioak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratzeko eginkizuna Ogasun eta Finantza Sailak beteko du beti, foru arau honetan arautzen diren prozeduren arabera.

ponencias de valores, previa en su caso delimitación del suelo, así como la fijación, revisión, modificación y actualización de los valores catastrales se ejercerá, en todo caso, por el Departamento de Hacienda y Finanzas con sujeción a los procedimientos regulados por esta Norma Foral.

II. Maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko higiezinen foru katastroari buruzkoak, 34. artikuluan xedatzen duenez, administrazioak eta gainerako erakunde publikoak behartuta egongo dira hura eratu eta mantentzeko garrantzi handia duten datuak edo txostenak ematera Bizkaiko Foru Aldundiari —Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 93. artikuluan ezarritako baldintzetan—, Bizkaiko Foru Aldundiak hala eskatuz gero, dela xedapen orokorren bidez dela errekerimendu zehatzen bidez.

II. Que de conformidad con el artículo 34 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, las Administraciones públicas y demás entidades públicas estarán obligadas a suministrar a la Diputación Foral de Bizkaia, en los términos previstos en el artículo 93 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, cuanto datos o antecedentes relevantes para su formación y mantenimiento sean recabados por ésta, bien mediante disposiciones de carácter general, bien a través de requerimientos concretos.

III. Abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak, Toki Ogasunei buruzkoak, 8. artikuluan xedatzen duenez, oro har, toki erakundeek eta foru aldundiak elkarlanean jardungo dute, berariazko hitzarmena sinaturik, tributuen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreren aplikazioari dagokion guztian.

III. Que el artículo 8 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, prevé, con carácter general, que los Ayuntamientos y la Diputación Foral de Bizkaia colaborarán mediante la suscripción del oportuno Convenio, en todos los órdenes de la aplicación de los tributos y de los restantes ingresos de derecho público.

IV. 1997ko maiatzaren 8an, Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta hura ordezkatuz, eta Basauriko Udaleko alkateak, Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren katastroa kudeatzeko lankidetzako marko-hitzarmen bat sinatu zuten, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko foru erakundeen hautapen, antolaketa, erregimen eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera, 1997ko ekainaren 26ko BAOn argitaratu zena, Ogasunaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 21eko

IV. Que con fecha 8 de mayo de 1997, por el diputado foral de Hacienda y Finanzas, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, y por el Alcalde del Ayuntamiento de Basauri se suscribió un Convenio marco de colaboración en materia de gestión catastral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, en virtud de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, publicado en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Ebazpenaren bidez (Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren katastroa kudeatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Basauriko Udalak sinatu duten marko-hitzarmena jendaurreko egingo duen Ebazpena).

«Boletín Oficial de Bizkaia» del 26 de junio de 1997, mediante la Resolución de 21 de mayo, del Director General de Hacienda, por la que se da publicidad al Convenio marco celebrado entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Basauri para la gestión catastral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

V. Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen diren katastroa kudeatzeko zenbait eskumen ordezkatu zituen Basauriko Udalak burutu zitzan, Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako ereduari, balorazio irizpideei eguneraketari eta aplikatzeko jarraibideei jarraituz beti. Eta, horren ondorioz, Basauriko Udalak hitzarmen horretan aipatutako eginkizunak bete ditu, eskuordetze araubidean.

V. Que la Diputación Foral de Bizkaia delegó determinadas facultades de gestión catastral competencia de la Diputación Foral de Bizkaia para que fueran ejercidas por el Ayuntamiento de Basauri, siguiendo siempre el modelo, criterios de valoración, actualización e instrucciones para su aplicación fijadas en todo caso por la Diputación Foral de Bizkaia. Y en consecuencia el Ayuntamiento de Basauri ha venido ejerciendo en régimen de delegación las funciones citadas en dicho convenio.

VI. Udalak eskuordetze bidez Bizkaiko Foru Aldundiari esklusiban dagozkion eskumen batzuk burutu ahal izateko, hitzarmen horretan Basauriko Udalaren eta Foru Aldundiaren interkonexio bat galdegin zen.

VI. Para que el Ayuntamiento pudiera ejercer por delegación algunas facultades que de manera exclusiva corresponden a la Diputación Foral de Bizkaia se requirió en dicho Convenio una interconexión informática entre el Ayuntamiento de Basauri y la Diputación Foral.

VII. Esklusibotasunez eta indarreko xedapenen arabera Aldundiari dagozkion eta berak, hitzarmen honen bidez, Udalari eskuordetzen dizkion egintzen kontra, zergadunek berraztertzeko errekurtsoa edota erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahalko dute Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan.

VII. Contra los actos que de manera exclusiva y en virtud de las disposiciones vigentes corresponden a la Diputación y que ésta, mediante el presente convenio, delega en el Ayuntamiento, los y las contribuyentes podrán interponer en todo caso, recurso de reposición y/o reclamación económico-administrativa ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral.

VIII. Sinatu zenetik igarotako denbora kontuan hartuta, 2016an komenigarritzat jo zen hitzarmen berri bat

VIII. Dado el tiempo transcurrido desde su firma, en el año 2016 se consideró conveniente el establecimiento

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezartzea, unean uneko katastro-kudeaketaren inguruabarrei egokituko zitzaiena.

de un nuevo Convenio que se adaptase a las circunstancias de la gestión catastral del momento.

IX. Indarrean dagoen hitzarmenaren amaiera hurbil dagoenez, komenigarritzat jo da hitzarmen berri bat ezartzea, katastroaren kudeaketaren egungo inguruabarrei egokitzen zaiena, eta xedapen hauek ezarri dira:

IX. Debido a la proximidad de la finalización del vigente convenio se considera conveniente el establecimiento de un nuevo Convenio que se adapte a las circunstancias de la gestión catastral actual, procediendo a establecer las siguientes:

XEDAPENAK

ESTIPULACIONES

Lehenengoa.—*Xedea*

Primera.—*Objeto*

Hitzarmen honen xedea erakunde bien arteko lankidetza marko bat ezartzea da, katastroaren kudeaketa osatzen duten eskumenak burutu ahal izateko. Haren edukia eta araubide juridikoa xedapen hauetan zehaztuko dira.

Es objeto de este Convenio el establecimiento de un marco de colaboración entre ambos Entes, en orden a poder ejercer las facultades que integran la gestión catastral, cuyo contenido y régimen jurídico se determinará en las estipulaciones siguientes.

Bigarrena.—*Eskuordetutako kudeaketa eginkizunak*

Segunda.—*Funciones de gestión delegadas*

Basauriko Udalak eginkizun hauek burutuko ditu, eskuordetze araubidean, Higiezinen Foru Katastroari dagokionez:

El Ayuntamiento de Basauri ejercerá, en régimen de delegación, en relación con el Catastro Inmobiliario Foral las funciones de:

a) Alta aitorpenak eta katastroan, maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko higiezinen foru katastroari buruzkoak, 16. artikuluan aipatzen dituen ondasun higiezinetan, gertatzen diren aldaketa fisiko, juridiko eta ekonomikoak jaso eta izapidetzea, Basauriko Udalean aurkeztuz.

a) Recepción y tramitación de las declaraciones de alta y de las alteraciones catastrales de orden físico, jurídico y económico que se produzcan en los bienes inmuebles a que se refiere el artículo 16 de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, presentándose las mismas en el Ayuntamiento de Basauri.

Jarduketa hauek sartuko dira eskumen horretan:

Dicha facultad comprenderá las siguientes actuaciones:

— Zergadunei aitorpenak betetzen laguntzea.

— Asistencia a las y los contribuyentes en la cumplimentación de las declaraciones.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

— Gertatutako errekerimenduak formalizatzea.

— Katastroko titularra aldatzeko erabakiak hartzea.

— Katastroko datuak aldatzeko erabakiak hartzea eta prozedura behin betiko amaitzeko katastroan inskribatzeko jarduketa egokiak egitea.

— Emandako egintzen aurka jarritako berraztertzeko eta oker materialak zein egitatezkoak zuzentzeko errekurtsoak ebaztea.

— Hartutako ebazpenak katastroko titularrari jakinaraztea.

b) Katastroko datuen eta higiezinen errealitatearen arteko desadostasunak zuzentzeko eskaerak jaso eta izapidetzea, Foru Arauaren 20. artikuluan araututakoaren arabera. Eskumen horretan sartzen dira aurreko letran aipatutako jarduketak.

c) Katastroko datuak gorde, berritu eta berrikustea, hurrenez hurren, Foru Arauaren 18., 20. eta 21. artikuluetan araututako desadostasunak erregularizatzeko, ongitzeko eta/edo zuzentzeko prozedurak ofizioz izapidetuz, katastroko aldaketei buruz erabakitzen diren ebazpenak jakinaraztea.

d) Errolda egin eta onartzea, Foru Arauaren 29. eta 30. artikuluetan araututako baldintzetan.

— Formalización de los requerimientos a que hubiere lugar.

— Adopción de los acuerdos de cambio de titular catastral.

— Adopción de los acuerdos de modificación de datos catastrales y realización de las actuaciones de inscripción catastral oportunas para la resolución definitiva del procedimiento.

— Resolución de los recursos de reposición y de rectificación de errores materiales o de hecho que se interpongan contra los actos dictados.

— Notificación de las resoluciones adoptadas al o a la titular catastral.

b) Recepción y tramitación de las solicitudes de subsanación de discrepancias entre los datos catastrales y la realidad inmobiliaria, de conformidad con lo regulado en el artículo 20 de la citada Norma Foral, comprendiendo dicha facultad las actuaciones referidas en la letra anterior.

c) La conservación, renovación y revisión de los datos catastrales, mediante la tramitación de oficio de los procedimientos de regularización, rectificación y/o subsanación de discrepancias, regulados en los artículos 18, 20 y 21 de la citada Norma Foral respectivamente, así como la notificación de las resoluciones adoptadas, respecto de las alteraciones catastrales que se acuerden.

d) Elaboración y aprobación del Padrón en los términos regulados en los artículos 29 y 30 de la citada Norma Foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

e) Bizkaiko Foru Aldundiari katastroa ikuskatzen laguntzea.

e) Colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia en la inspección catastral.

f) Katastroa kudeatzeko eta Higiezinen Foru Katastroan inskribatutako ondasun higiezinak zerga ondorioetarako baloratzeko behar diren datuak mantendu eta eguneratzeko beste edozein jarduketa egitea.

f) Realización de cualesquiera otras actuaciones para el mantenimiento y actualización de los datos necesarios para la gestión catastral y para la valoración a efectos fiscales de los bienes inmuebles inscritos en el Catastro Inmobiliario Foral.

Katastroko aitorpen guztiak eta desadostasunak zuzentzeko eskaerak Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren Foru Aginduak onartutako ereduetan formalizatuko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 28ko 118/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroaren Erregelamenduaren 8. artikuluko 1. zenbakian xedatutakoaren arabera.

Todas las declaraciones catastrales así como las solicitudes de subsanación de discrepancias se formalizarán en los modelos aprobados por Orden Foral del diputado/a foral de Hacienda y Finanzas, en virtud de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 8 del Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 118/2016, de 28 de junio.

Bizkaiko Foru Aldundiak aurreko letretan aipatutako katastroa kudeatzeko prozedurak hasi, izapidetu eta ebazteari buruz eta haien arabera hartutako ebazpenak jakinarazteari buruz unean-unean ezarritako jarduteko irizpideen eta gidalerroen arabera burutuko ditu Basauriko Udalak eskuordetutako eskumen guztiak.

Todas las facultades delegadas se ejercerán por el Ayuntamiento de Basauri de conformidad con los criterios de actuación y directrices establecidos en cada momento por la Diputación Foral de Bizkaia en relación con el inicio, tramitación y resolución de los procedimientos de gestión catastral referidos en las letras anteriores y en relación con la notificación o comunicación de las resoluciones adoptadas en su virtud.

Udalak ezingo dizkio inolaz ere, era berean, hitzarmen honen arabera eskuordetu zaizkion eskumenak beste erakunde bati eskuordetu.

En ningún caso podrá el Ayuntamiento delegar, a su vez, en otra entidad, las funciones que le han sido delegadas en virtud del presente Convenio.

Hirugarrena.—*Ahalmen erreserbatuak*

Tercera.—*Facultades reservadas*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Aldundiak beretzat gordeko ditu eginkizun hauek, Higiezinen Foru Katastroari dagokionez:

La Diputación Foral de Bizkaia se reservará en relación con el Catastro Inmobiliario Foral las funciones de:

a) Aitorpenak aurkezteko eta desadostasunak zuzentzeko eskatzeko eta katastroa aldatzeko eskaerak egiteko ereduak, zein katastroa kudeatzeko prozedurak hasi, izapidetu eta ebazteko eta hartutako ebazpenak edo egindako jarduketak jakinarazteko jarduketa irizpideak definitzea.

a) Definición de los modelos para la presentación de declaraciones y para la solicitud de subsanación de discrepancias y solicitudes de modificación catastral, así como de los criterios de actuación para el inicio, tramitación y resolución de los procedimientos de gestión catastral y para la notificación o comunicación de las resoluciones adoptadas o actuaciones realizadas.

b) Higiezinen Foru Katastroari eta katastroko erroldari dagokienez, Basauriko Udalak egindako altak, bajak eta aldaketak berrikustea, bosgarren xedapenak aipatzen duen jarraipen batzordeak erabakitako baldintzetan.

b) Revisión, en los términos que se determine por la Comisión de Seguimiento a que se refiere la Estipulación Quinta, de las altas, bajas y modificaciones referentes al Catastro Inmobiliario Foral y al Padrón catastral realizadas por el Ayuntamiento de Basauri.

c) Balio-txostenak prestatu eta onartzea, eta katastro-balioak ezarri, berrikusi, aldatu eta eguneratzea.

c) Elaboración y aprobación de las ponencias de valores, así como la fijación, revisión, modificación y actualización de los valores catastrales.

d) Katastroaren ikuskapena, Basauriko Udalak lagundu badezake ere.

d) Inspección catastral, sin perjuicio de la colaboración por parte del Ayuntamiento de Basauri.

e) Katastro-kartografia prestatu eta kudeatzea.

e) Elaboración y gestión de la cartografía catastral.

Laugarrena.—*Informazioa trukatzea*

Cuarta.—*Intercambio de información*

Hitzarmen honetan jasotako eginkizunen eskuordetza indarrean egon dadin, beharrezkoa izango da Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren artean interkonexio informatikoa egotea. Horretarako, bi administrazioek behar bezala bermatuko dute Aldundiaren datu-basean indarrean dagoen katastroko informazioa Udalak erabilitakoarekin bat datorrela.

Para la vigencia de la delegación de funciones contenida en el presente convenio se requerirá, en todo caso, que exista interconexión informática entre la Diputación Foral y el Ayuntamiento de Basauri.A estos efectos se garantizará adecuadamente por ambas administraciones que la información catastral vigente en la base de datos de la Diputación sea coincidente con la utilizada por el Ayuntamiento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Horretarako, informazio-trukeko sistemak bermatuko du Bizkaiko Foru Aldundiari helarazten zaiola Basauriko Udalak hitzarmen honen arabera eskuordetutako eginkizunak burutuz egindako katastroko datuen aldaketa oro. Bi datu-baseak bat ez badatoz, Bizkaiko Foru Aldundiaren datu-basea gailenduko da.

Para ello, el sistema de intercambio de información garantizará la transmisión a la Diputación Foral de Bizkaia de toda alteración o modificación de los datos catastrales que el Ayuntamiento de Basauri realice en el ejercicio de las funciones delegadas en virtud del presente Convenio. En el caso de discrepancia entre ambas bases de datos, prevalecerá la base de datos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Halaber, Aldundiak hauei buruzko informazioa bidaltzeko eskatu ahalko dio Udalari:

Asimismo, la Diputación podrá solicitar al Ayuntamiento la remisión de información relativa:

a) Erroldari buruzkoa, urtean behin, hura egin eta onartu ondoren.

a) Al Padrón, una vez al año, después de emitido y aprobado el mismo.

b) Hitzarmen honen arabera eskuordetutako katastroa kudeatzeko prozedurak izapidetzeko espedienteei eta beraietan dauden agiriei buruzkoak, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatu ondoren.

b) A los expedientes de tramitación de los procedimientos de gestión catastral delegados en virtud del presente convenio y a los documentos en ellos obrantes, previo requerimiento por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko katastroa kudeatzeko eta Higiezinen Foru Katastroan inskribatutako ondasun higiezinak baloratzeko behar diren katastroko datu guztiei buruzkoak.

c) A cuantos datos catastrales sean necesarios para la gestión catastral del Territorio Histórico de Bizkaia y la valoración de los bienes inmuebles inscritos en el Catastro Inmobiliario Foral.

Bizkaiko Foru Aldundiak erabakiko ditu hizpaketa honetan aipatzen diren informazioa trukatzeko diseinuak eta formatuak. Hala ere, arreta berezia jarriko du Udalari behar adinako aurrerapenaz jakinarazteko.

Será la Diputación Foral de Bizkaia la que determine los diseños y formatos de intercambio de información a que se refiere la presente estipulación.No obstante, pondrá especial cuidado en darlos a conocer con suficiente antelación al Ayuntamiento.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bosgarrena.—*Hitzarmenaren jarraipen eta kontrol batzordea*

Jarraipen, zaintza eta kontrol batzorde bat eratuko da. Batzordeburua Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroaren ardura duen zuzendaritza nagusiko arduraduna izango da, eta alde bakoitzeko hiru kidek osatuko dute, idazkari Bizkaiko Foru Aldundiko kideetako batek jardungo duela.

Batzordeak zainduko du hitzarmena burutzen dela eta aldeek hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen dituztela, eta behar diren neurri guztiak hartuko ditu hartutako betebeharrak koordinatuta burutzen direla bermatzeko.

Halaber, Jarraipen Batzordeak hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko ager daitezkeen arazoak ebatziko ditu, hurrengo seigarren xedapenean xedatutakoa ere kontuan hartuz.

Jarraipen Batzordeak bere xedeak betetzeko behar diren ohiko bilkura zein bilkura berezi guztiak egingo ditu, batzordeburu diharduenak horretarako deialdia egin ondoren, bere ekimenez zein gainerako kideen eskaerak kontuan hartuz.

Batzorde horrek kide anitzeko organoei aplikatzen zaizkien foru arauetan jasotako xedapenak eta, haiek osatzeko, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, atariko tituluko II. kapituluko 3. atalean ezarritakoak, betez jardungo du.

Quinta.—*Comisión de seguimiento,vigilancia y control del convenio*

Se constituirá una Comisión de Seguimiento, Vigilancia y Control, presidida por la persona responsable de la Dirección General de la que dependa el Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, y formada por tres miembros de cada parte, actuando como Secretario o Secretaria una o uno de los miembros de la Diputación Foral de Bizkaia.

La Comisión velará por la ejecución del Convenio y el cumplimiento de las obligaciones y compromisos adquiridos por las partes y adoptará cuantas medidas sean precisas, en orden a garantizar que las obligaciones asumidas se ejerzan de forma coordinada.

Asimismo, la Comisión de Seguimiento resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto del presente Convenio, sin perjuicio de lo dispuesto en la estipulación sexta siguiente.

La Comisión de Seguimiento celebrará cuantas sesiones ordinarias y extraordinarias sean necesarias para el cumplimiento de sus fines, previa convocatoria al efecto de la persona que ostente la Presidencia, de propia iniciativa o teniendo en cuenta las peticiones de los demás miembros.

Esta Comisión ajustará su actuación a las disposiciones contenidas en las normas forales de aplicación a los órganos colegiados, y con carácter supletorio, a las establecidas en la Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BASAURI
Udala • Ayuntamiento

Seigarrena— *Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak frogatzeko eta kontrolatzeko epealdia eta modua*

Hitzarmena betetzen dela eta alderdiek hartutako konpromisoak kontrolatzeko, Udalak Katastro eta Balorazio Zerbitzuari justifikazio-kontu bat aurkeztuko dio, gastuaren egiaztagiriekin batera. Bi urtean behin egingo da, maiatzaren 31 baino lehen eta azaroaren 30a baino lehen.

Ondorio horietarako, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Hartutako konpromisoak bete direla frogatzen duen jarduketen memoria; bertan, egindako jarduketak eta lortutako emaitzak bilduko dira.

b) Memoria ekonomikoa, hitzarmena gauzatzeko gastuak frogatzen dituena. Honako agiri hauek eduki behar ditu:

1) Hitzarmenaren xede den proiektuari egotzitako diru-sarreren eta gastuen egoera-orria.

2) Aurreko atalean adierazitako gastuen orriko partida bakoitzeko, jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, honako datu hauekin: hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, bidalketa data eta, behar denean, ordainketa data.

3) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten dokumentuak edo eraginkortasun administratiboa dutenak, betiere aurreko lerroaldean aipatutako zerrendaren barruan, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko dokumentazioa. Aurreko hori

Sexta.— *Plazo y forma de justificación y control de las actuaciones a realizar por cada una de las partes*

El control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por las partes se llevará a cabo mediante la presentación por parte del Ayuntamiento ante el Servicio de Catastro y Valoración de una cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto que se efectuará con carácter bianual, antes del 31 de mayo y antes del 30 de noviembre.

A estos efectos la documentación a presentar será la siguiente:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de los compromisos acordados, con indicación de las actuaciones realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una memoria económica justificativa de los gastos derivados de la ejecución del convenio, que contendrá:

1) Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto objeto del convenio.

2) Para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalado en el apartado 1. anterior, una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

3) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago. No

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

gorabehera, alderdiek halakoak aurkeztea beharrezkoa ez dela erabaki ahal dute, eta ezarri ahal dute frogagiri horiek egiaztatzeko egokitzat jotzen diren laginketa teknikak erabili ahal direla, finantza-ekarpena egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko; hartara, pertsona onuradunari hautatutako gastu eta ordainketen nahiz ordainketaren frogagiriak bidaltzeko eskatu ahalko dio.

4) Bigarren atalean aipatzen den zerrendan sartuta dauden eta banatzeko modukoak diren kostu orokorrak banatzeko irizpideen zerrenda, hala badagokio, hitzarmenean oroharreko prezio bidez eta justifikatu beharrik gabe konpentsatzea aurreikusi den kasuetan izan ezik.

5) Aurreko 1. atalean adierazitako gastuen orriko partida bakoitzeko, jarduera finantzatu duten dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreren eta baliabideen zerrenda, horietako bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria xehatzen dituena.

6) Gastuaren zenbatekoa handiagoa bada Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikietarako finkatutako zenbatekoa baino, gastua egikaritu duen alderdiak hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango, baldin eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitaterik ez badago. Justifikazioan agerrarazi behar da aurkezturiko eskaintzen artean aukeraturikoa. Hartara, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak bete beharko dira. Aukeraketa beren-beregi justifikatu behar da memorian, proposamen merkeena egin duena hautatu

obstante, lo anterior, las partes podrán convenir prescindir de su presentación, estableciendo que la comprobación de los citados justificantes se realizará mediante la aplicación de las técnicas de muestreo que estimen oportunas para obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la aportación financiera, en cuyo caso, podrá reque rir a la persona receptora la remisión de los justificantes de gasto o inversión seleccionados, así como el de su pago.

4) Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y repartibles incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado 2, excepto en aquellos casos en que en el convenio se haya previsto su compensación mediante un tanto alzado sin necesidad de justificación.

5) Una relación detallada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos señalado en el apartado 1 anterior, de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, en su caso, que hayan financiado la actividad con indicación del importe y su procedencia.

6) Cuando el importe del gasto supere las cuantías establecidas en la Ley de Contratos del Sector Público, para el contrato menor, la parte que ejecuta el gasto deberá solicitar como mínimo tres ofertas a diferentes proveedoras, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en la memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ezean. Hala ere, hitzarmenaren eta haren ezaugarrien xedeari jarraikiz egiaztapen-lan egokia egiteko ez da beharrezkotzat jotzen aurreko paragrafoetan eskatutako justifikazio-agiri guztiak aurkeztea, beharrezkoak ez diren horiek ez aurkezteko adierazi ahalko da.

más ventajosa. No obstante lo anterior, cuando por razón del objeto del convenio y de sus características, se estimará que para realizar una correcta labor de comprobación no es necesaria la presentación de toda la documentación justificativa exigida en los párrafos anteriores, podrá prescindirse de parte de la misma.

Zazpigarrena.— *Araubide juridikoa*

a) Bere zerbitzuak antolatzeko eskumenak kaltetu gabe, Aldundiak eskuordetutako eginkizunak bete beharko ditu Udalak, agiri honetan azaldutako puntuak zorrozki betez.

b) Bosgarren hizpaketan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, hitzarmen hau interpretatzean, betetzean, azkentzean, suntsiaraztean eta haren ondorioetan sor daitezkeen auziak ebazteko, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko auzitegiak izango dira eskudunak.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 85. artikuluak aipatzen dituen kontsultak, hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera Basauriko Udalak bere gain hartutako eskumenei buruz egindakoak, berak argituko ditu.

d) Udalak ordezkatutako eskumenak burutzean emandako egintzen kontra, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahalko dituzte Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, Foru Aldunditik ateratako egintzen aurkako errekurtso horiek jartzea arautzen duen araudiak ezarritako forman eta epeetan.

Séptima.—*Régimen jurídico*

a) Sin perjuicio de las facultades de organización de sus propios servicios, el Ayuntamiento deberá ejercer las funciones delegadas por la Diputación con estricto cumplimiento de los extremos expuestos en este documento.

b) Sin perjuicio de lo prevenido en la Estipulación Quinta, para resolver los litigios que pudieran surgir sobre la interpretación, cumplimiento, extinción, resolución y efectos del presente Convenio, serán competentes los Tribunales del orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

c) Las consultas a que se refiere el artículo 85 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, que se formulen en relación con las facultades asumidas por el Ayuntamiento de Basauri en virtud de lo dispuesto en el presente Convenio, serán evacuadas por el mismo.

d) Contra los actos dictados por el Ayuntamiento en el ejercicio de las facultades delegadas, las personas interesadas podrán interponer recurso de reposición, con carácter potestativo, y reclamación económico-administrativa ante el Tribunal EconómicoAdministrativo Foral, en la forma y plazos establecidos por la normativa reguladora de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

interposición de tales recursos contra los actos emanados de la Diputación Foral.

e) Aldundiak hitzarmen honetan jasotako eskuordetzea errebokatuko du, Udalak eman zaizkion gidalerroak edo jarraibideak betetzen ez dituenean, edo, beharrezkoa balitz, eskuordetutako eskumenak burutzean sumatutako akatsak zuzentzeko Aldundiak egin liezazkiokeen errekerimenduei kasu egiten ez dienean.

e) La Diputación revocará la delegación contenida en el presente Convenio, cuando el Ayuntamiento incumpla las directrices o instrucciones que se le impartan, cuando deniegue la información que se le pueda solicitar, o cuando no atienda a los requerimientos que, en su caso, le pudiere hacer la Diputación para subsanar las deficiencias advertidas en el ejercicio de las facultades delegadas.

f) Hitzarmena, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 51. artikuluan aurreikusitako zioengatik ez ezik, edozein aldek eskatuta ere azkenduko da, azkentzeak eragina izango duenaren aurreko urteko irailaren bata baino lehen beste aldeari jakinarazi ondoren.

f) El Convenio se extinguirá, además de por las causas previstas en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, a instancia de cualquiera de las partes, previa notificación a la otra parte antes del uno de septiembre del año anterior a aquel en que la extinción vaya a surtir efecto.

g) Hitzarmen honetako baldintzak aldatzeko, aho batez hartu beharko dute erabakia alde biek.

g) La modificación de los términos del presente Convenio requerirá el acuerdo unánime de ambas partes.

h) Hitzarmen honen azkentzearen ondorioak urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 52. artikuluan xedatutakoak arautuko ditu.

h) Los efectos de la resolución del presente convenio se regirán por lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Zortzigarrena.—*Araubide ekonomikoa*

Katastroa mantentzeko kostua administrazio publiko biek partekatuko dute hitzarmen hau sinatzen den unetik aurrera. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak Basauri udalerriko katastroa mantentzea finantzatzeko kopurua ezarriko du urtero bere aurrekontuetan. Kopuru horrek Udalak azpikontratatutako lanen kostuaren ehuneko hirurogeita hamabost (% 75) estali beharko du (lan horiek lehenago planifikatuko dira eta

Octava.—*Régimen económico*

El coste del mantenimiento del catastro se compartirá por ambas administraciones públicas a partir de la firma del presente convenio. A estos efectos, la Diputación Foral de Bizkaia establecerá anualmente en sus Presupuestos la cantidad destinada a la financiación del mantenimiento del catastro del municipio de Basauri, que deberá cubrir el setenta y cinco por ciento (75%) del coste de los trabajos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Jarraipen Batzordeak aztertu beharko ditu, ondoren dagokien aurrekontu-ekitaldian garatzeko), eta urtero ordainduko den gehieneko zenbatekoa berrogeita hamar mila eurokoa (50.000 euro) izango da.

externalizados por el Ayuntamiento (previamente planificados y sometidos al estudio y consideración de la Comisión de Seguimiento, para su posterior desarrollo en el ejercicio presupuestario correspondiente), siendo el importe máximo a abonar anualmente de cincuenta mil euros (50.000 euros).

Urteko finantza-ekarpena aurrekontuko partida honen kargura egingo da:

La aportación financiera anual se realizará con cargo a la siguiente partida presupuestaria:

— 0501 organikoa 932124 programa 43299 ekonomikoa 2007/0196 partida/proiektua.

— Orgánico 0501 programa 932124 económico 43299 partida/proyecto 2007/0196.

Hitzarmenak balioa izan dezan, ezinbestekoa da haren ondoriozko betebeharrak finantzatzeko behar den kreditu nahikoa egotea.

La validez del presente Convenio queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo.

Nolanahi ere, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean Foru Aldundiak hitzarmenen bat lortzen badu EUDELekin Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako katastroa mantentzeko finantzaketari buruz, udalentzat hobea dena, hitzarmen hori automatikoki aplikatuko zaio Basauriko Udalari haren balio-datatik aurrera, eta xedapen hau automatikoki indargabetuko da.

No obstante, si durante la vigencia de este Convenio, la Diputación Foral alcanzare algún acuerdo con EUDEL referente a la financiación del mantenimiento del catastro de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia, en términos más favorables para los Ayuntamientos, dicho acuerdo será aplicable automáticamente al Ayuntamiento de Basauri desde su fecha de validez, con derogación automática de la presente estipulación.

Bederatzigarrena.—*Indarrean jartzea eta indarraldia*

Novena.—*Entrada en vigor y plazo de vigencia*

Hitzarmen honen indarraldia 4 urtekoa izango da, eta 2025eko urtarrilaren 1az geroztik izango ditu ondorioak.

El plazo de vigencia del presente Convenio será de 4 años, y producirá sus efectos a partir del 1 de enero de 2025.

Hori hala izanik ere, hitzarmenak ondoz-ondoko urtebeteko epeetan luzatu ahalko da, 4 urteraino gehienez, edozein sinatzailek beste aldeari luzapenak eragina izango duenaren aurreko urteko irailaren bata baino lehen kontrako borondatea jakinarazten ez dion

No obstante lo anterior, el Convenio podrá ser prorrogado por plazos sucesivos de un año hasta un máximo de 4 años, siempre que cualquiera de los firmantes no notifique a la otra parte su voluntad en contra, antes del uno de septiembre del año anterior al

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

bitartean, zazpigarren xedapeneko e) letran aurreikusitako eskuordetzea errebokatzeko eskumena kaltetu gabe.

año en que la prórroga vaya a surtir efecto sin perjuicio de la facultad de revocación de la delegación prevista en la letra e) de la Estipulación Séptima.

Ados daudela adierazteko, hitzarmen hau formalizatu eta sinatu dute bi alderdiek, sinadura digitalean adierazitako egunean.

En prueba de conformidad, se formaliza y firma por ambas partes el presente convenio en la fecha indicada en la firma digital.

Bilboko udaleko alkate-udalburua

El Alcalde presidente del Ayuntamiento de Basauri

ASIER IRAGORRI BASAGUREN

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

La Diputada Foral de Hacienda y Finanzas

ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: LN8G-128F-O6KX-Q3CL
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus